

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5784

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 2koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko dirulaguntzak ematen baitira 2019. urtean.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko irailaren 17ko Aginduaren bidez, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2019ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen (irailaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 185. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea bukatu da, aipatutako aginduaren 9. artikuluekin bat etorritz. Bada, agindu horren 14. artikuluan ezarritako Balorzio Batzordeak bilera egin zuen eskabideak aztertzeko, eta haiei buruzko ebazpen-proposamena eman zuen 2019ko azaroaren 15ean.

Balorzio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aginduekin eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ez onartzea 1. eranskinean jasotako proiektuak, ez datozelako bat aginduan diruz laguntzeko modukotzat hartzen diren jardurekin.

Bigarrena.— Dirulaguntzak ematea 2. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei, han zehazten diren zenbatekoen arabera.

Hirugarrena.— Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Laugarrena.— Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2019ko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntza hauek arautzen dituen aginduaren 7. artikuluekin bat etorritz.

Bosgarrena.— Aginduaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak. Emandako dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa egiteko, aginduaren 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Betiere, diruz lagundutako proiektuak justifikatzeko epea 2020ko urtarrilaren 15ean bukatuko da.

Seigarrena.— Gastua justifikatu ondoren ordainduko dira agindu arautzaileen kontura emandako dirulaguntzak, dirulaguntzaren indarraldiaren bukaeran eta, betiere, eskatutako agiriak aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.— Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 2a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

1. ERANSKINA

Esp.	Eskatzailea	Jarduera	Ukatzeko zergatia
005-IKO-2019	Ayuntamiento de Pasaia	Festival marítimo de Pasaia 2020	Agindu honek ez ditu horietako jarduerak diru-laguntzen
026-IKO-2019	Beduaola Untziola Elkartea	Egurrezko "Magallanes" batela bela tradizionalaz hornitzea	Agindu honek ez ditu horietako jarduerak diru-laguntzen

2. ERANSKINA

Esp.	Onuraduna	Jarduera	Zenbatekoa
1. lerroa			
011-IKO-2019	Albaola Elkarte	Exposición Bateles/Proyecto 1 batel Mesker	2.161,00
012-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 1 proyecto 2 batel Maribeltz	2.031,00
013-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 1 proyecto 3 Butus	780,00
009/1-IKO-2019	Fundacion Museo Maritimo Ria de Bilbao	Puesta en valor del pesquero Nuevo Anchústegui	17.598,50
008-IKO-2019	Santurtziko Udala-Ayuntamiento de Santurtzi	Barco pesquero Agurtza - Fase 1	24.193,95
		Guztira:	46.764,45
2. lerroa			
014-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 2 proyecto 1 Ozentziyo el ultimo atunero	8.820,00
015-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 2 proyecto 2 Ameriketatik la trainera vasca	2.400,00
016-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 2 proyecto 3 Lafayette	1.650,00
007/1-IKO-2019	Amuaitz Lertxundi Villanueva y Otro Cb	Ostarte sailing. Lucretia	4.613,62
007/2-IKO-2019	Amuaitz Lertxundi Villanueva y Otro Cb	Ostarte sailing. Tanit	3.530,29
029-IKO-2019	Asoc Itsas-Gela Aula del Mar	Mater, Patrimonio Marítimo Vivo. Puesta a punto 2019	13.460,08
021-IKO-2019	Fundacion Atyla	Musealización del barco Atyla	5.348,55
		Guztira:	39.822,54
3. lerroa			
010-IKO-2019	Ayuntamiento de Lekeitio	Rehabilitación del Astillero Mendieta. programa actuaciones 2019	20.650,09
		Guztira:	20.650,09
4. lerroa			
017-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 4 proyecto 1 atraque de Ozentziyo	2.000,00
018-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 4 proyecto 2 legalización Ameriketatik	1.900,00
019-IKO-2019	Albaola Elkarte	Línea 4 proyecto 3 legalización Mesker	1.900,00
001-IKO-2019	Antia Vinos, Iñigo	Kresala-Memoria actividades 2019	607,23
030-IKO-2019	Lorea Dental, S.L.	Rehabilitación integral de una txipironera	2.727,35

Esp.	Onuraduna	Jarduera	Zenbatekoa
023-IKO-2019	Oarsoaldea SA	Proyecto legalización embarcación Zabarre	1.149,00
024-IKO-2019	Oarsoaldea SA	Proyecto legalización embarcación Gastibelza	1.150,00
025-IKO-2019	Oarsoaldea SA	Proyecto legalización embarcación Arditurri	1.150,00
032-IKO-2019	Pérez de Arriba Díaz de Argandoña, Jose Luis	Reparación de embarcación tradicional Andrea (chipironera)	2.270,52
		Guztira:	14.854,10
5. lerroa			
020-IKO-2019	Albaola Elkartea	Línea 5 proyecto 1 exposición temporal e itinerante de embarcaciones tradicionales	3.000,00
022-IKO-2019	Arma Plaza Fundazioa	Divulgación de la memoria de la pesca en Hondarribia a través de testimonios orales. 2019	3.000,00
002-IKO-2019	Beduaola Untziola Elkartea	Hiru Anai batelaren berreskurapena	3.000,00
009/2-IKO-2019	Fundacion Museo Maritimo Ria de Bilbao	Puesta en valor pesquero Nuevo Anchústegui	45,00
		Guztira:	9.045,00
		Guztira:	131.136,18